

Picos de Europa

ASTURIAS CANTABRIA
MAPA NONDIK



Izaskun Estibaritz Astarloa (*)



Jose Inazio Izagirre Izagirre

Tresviso: biznesgaitzak

■ Tresviso bere kokapen zoragarrian. Atzean, ezkerrean, ekialdeko mendigunea eta erdian, Peña Castil, Urriellu, Neverón de Urriellu...

1996. Uztaila da. Fuente Dé inguruan gabiltza gailurrez gailur. Espinamara jaitsi eta hurrengo egunerako eguraldiaren iragarpena oso ona ez dela jakin ondoren, beste planen bat egin beharrean aurkitzen gara. Nora joan?

Ez dugu oso ondo gogoratzen, baina baten batek aholkatuta, guretzat erabat ezezaguna zen Tresvisora igotzeko asmoarekin hurbildu ginen Urdonera. Eguraldi euritsua eta behelainoa. Lortu genuen herrira igotzea eta jaistea, gehiegi ikusi gabe, baina erabat maiteminduta itzuli ginen. Herrira zihoan postariarekin egin genuen topo bidean, eta honek kontatu zizkigun historiak eta herriaren kokapena eta bidea bera, izugarriak iruditu zitzaizkigun. Ideia bat buruan: gehiagotan etorri behar gara hona... Eta horrela izan da. Askotan etorri gara, bide ezberdinak ezagutu ditugu, oraindik besteren bat geratzen zaigu... eta maiteminduta jarraitzen dugu.

■ Historia laburra

Tresviso Kantabriako herria da eta Liebana eskualdean dago kokatuta, 899 metroko altueran, mendiz eta bertikalitatez inguratuta. Badirudi 1862. urtean ireki zela Urdonera jaisten den bidea eta 1863. urtean ireki zen La Hermida haitzarteko errepidea. Ordura arte, Tresvisoko biztanleek Potesera beren gazta saltzera joateko egin behar zuten ibilbidea izugarria zen. Dena mendiko bidezidorretatik, Urdoneko kanalera jaitsi, Perilluenga kanaletik Bejes gainean dagoen Hoja lepora igo, Bejes albo batera utzita Pelea lepora igaro eta Cabañes eta Pendes herrietatik pasa ondoren, Tamara jaitsi Potesera heltzeko. 1866. urtean Urdoneko bidea zabaldu zuten eta gurdiekin jaisteko aukera izan zuten aurrerantzean. Baina, tresvisoarrek beti izan dute inguruko herriekin harremana eta horretarako, ibilbide sinesgaitz eta korapilatsuak erabiltzen zituzten. Bejes, San Esteban, Oceaño eta beste herri batzuekin bazituzten komunikazioak.

1991. urtean ireki zen Tresvisorako errepidea. Arenas de Cabralesetik, Puente Poncebos, Tielve eta Sotresera (Asturias) zetorren errepidea Tresvisoraino luzatu zuten.

IZASKUN y JOSE INAZIO quieren compartir con nosotros con este artículo el asombro con que descubrieron una serie de rutas en los espectaculares parajes que rodean el pueblo de Tresviso. Las paredes occidentales del desfiladero de la Hermida y los increíbles senderos que superan tradicionalmente estos y otros vertiginosos barrancos del macizo oriental de los Picos de Europa, cautivaron irremediabilmente a los autores desde sus primeras incursiones por la zona. Quedaron prendados del lugar y ya no podrán evitar que el destino les vuelva a llevar una y otra vez a la pequeña y encantadora localidad cántabra de Tresviso. La presencia ininterrumpida de actividad humana en este macizo de los Picos, también ha dejado huellas de su ingenio en parajes que se antojan imposibles a ojos del visitante extraño. Son cinco rutas que nos invitan a descubrir todo esto de la mano de Izaskun y Jose Inazio, sin olvidar la obligación de probar la sidra y el queso que producen tradicionalmente esas montañas.

Tresvisoko biztanleak betidanik artzaintzan ibili dira. Jarduera nagusia gaztagintza izan da eta oraindik ere horrela da. "Picon" gazta famatua ekoizten dute.

Ondoren aipatzen diren bost ibilbideetatik, lehenengoa da inongo oztoporik ez duena, ondo tratatuta dago eta jende asko ibiltzen da. Gainontzeakoak, ez dira ondo prestatu gabe joateko eta, batez ere, Reninuevo kanala eta azkenengo biak, eremu menditsu eta bertikaletan ohituta daudenentzat dira. Gogorak dira eta pasabide zailak dituzte.

Ángel Sánchez Antonen "Macizo Nororiental de los Picos de Europa. Peñas Cabriegas" liburua eta bertan datorren mapa izan dira gure laguntzaileak. Oso liburu interesgarria.

(*) Izaskun Estibaritz Astarloa (Elgoibar 1956) eta Jose Inazio Izagirre Izagirre (Elgoibar 1957). Gaztetan, geure gurasoekin Euskal Herriko mendi eta bideak ibili ondoren, Pirinio eta Picos de Europako gailur eta bide ugari ezagutu ditugu. Kanpoko lurralde eta mendietan ere ibili gara: Iberiar penintsulan, Alpeetan, Atlasen, Kilimanjaron eta Andean. Himalaian ere trekkinga egiten ibilita gaude. Ahal dugun guztietan, motxila hartu eta toki berriak ezagutzera abiatzen gara.

dexka

■ *Trasdejorao kanala. Erdian dagoena da eta bertatik igoko dugu Joraora heltzeko*

IBILBIDEAK

1 SENDA DE LA PEÑA

Hau da Tresvisora heltzeko bide ezagunena. Meatzaritzako bidea da eta 1866. urtean La Esperanza Sozietateak eraiki zuen. Urdón ibaiaren isurtzen den tokitik abiatuko gara, La Hermida haitzartean. Bidea oso ondo markatuta dago eta jende ugari ibiltzen da. Beraz, ez dago galtzeko beldurrik. Hasieran ibaiaren ertzetik doa, beti horma bertikalez inguratuta. Ezkerrean, Cuetodave eta kanaletik errotzen diren urjauziak ditugu, eta beste aldean, Sahugo kanala, Joradao eta Pared del Buitre.

Azkenengo zubia igaro ondoren, harkaitzean zulatutako bideak Canalucas del Grezo eta ondoren Cerrosa kanaletik igotzen hasten da. Bihurgune ugari egiten ditu hemen bideak, Posa la Cerrosa-ra heldu arte. Lehen, hemen egiten zen lehenbiziko geldialdia, bertan dagoen "tomboa" aprobeztatuz. Gero, bideak La Bargonan gora jarraitzen du behatoki natural batera heltzeko. Hemendik aurrera paisaia ireki egiten da. Ezkerrean, ibaiaren daukagu, gero eta beherago, baita uraren kanala eta Bejes mendikateko basoa ere. Bihurguneak egiten jarraitzen dugu, eta horrela Pilatosen balkoira helduko gara. Hemen 500 bat metroko bertikalitatea daukagu ibaira. Badirudi Tresvisoko gazteek hemen apustuak egiten zituztela, inongo segurtasun neurririk hartu gabe, ea zein jaitsi bide azpian dagoen



■ *Senda de la Peñatik, Canal de los Vertederos. Reñinuevo kanaleko gehiegizko urak hemendik errotzen dira*

arteraino. Aurrerantzean, bidea lasaitu egiten da eta Priaseko inbernaletara helduko gara. Hemen, ur freskoa edateko aukera daukagu, iturria baitago. Prías kanala igotzea geratzen zaigu eta La Llosara heldu. Hemendik, herria ikusten dugu eta Picos de Europako ekialde eta erdiko mendiguneetako gailurrak osatzen duten hondorudi ederra ere bai. Pasiera atsegin bat besterik ez zaigu geratzen herrira heltzeko.

Garaiera alde: 825 m
Distantzia: 6,5 km Tresvisotik
Denbora: 2 - 2:30 ordu



■ Matallana korridorea igarotzen

2 REÑINUEVO KANALA

Ibilbide honekin abentura arloan sartzen gara. Guk egin dugun guztietan Tresvisotik jaisteko erabili dugu. Honen arrazoia, denbora luzez uraren kanaletik ibili behar dela, eta uraren aurkako noranzkoan joateak zorabiatzeko arrisku handia sortzen du. Beste aldetik, herrian gaudenean, 4-5 ordu beharko ditugula pentsatu behar dugu, eta horrela baloratu hortik sartu edo ez. Ibilbide gogorra da, igoera eta jaitsiera asko baitaude eta toki batzuetan bidea apurtuta baitago, kanaletik erortzen den ura medio. Bidea ez dago markatuta, nahiz eta pintura gorriko aztarna batzuk dauden tarteka. Ez da talde handian joateko ibilbidea.

Tresvisotik Sotresera doan errepidetik joan behar gara eta berehala, ikuilu berri batera heltzean, ezkerrera hartu eta jaisten hasi. Llosa Cimako inbenaletara heldu behar gara. Bertan, harkaitz handi bat dago. Hemendik Jorcada Cañimuelle eta Vallejos de Trascañimuelletik jaitsiko gara. Momentu batean bidea bukatzen dela dirudi, baina harrিতa ikusiko dugu nola hasten den jaisten maila natural eta artifizial batzuetatik erreka sortzen den ingurura. Bårdina del Nacimiento gaude. Tokia izugarria da, ura hormetatik erortzen eta landaretzaz beteta. Paraje honetaz gozatu ondoren, zubia igaro eta kanalarekin kontaktua hartuko dugu. Hemendik aurrera, kanalaren hormatik eta batzuetan hau utzi eta gainetik edota azpitik aurkituko ditugun bidezidorretatik joango gara. Badaude toki bereziak, Río Chicoren gaineko zubia, urjauziekin; Media Galeria, bidea harkaitzean landuta eta bustitzea normala denekoa; Peñas Negras, hemen bidea erabat deseginda dago; Matallana korridorea, hormatik kanpo eraikita dagoen balkoia, benetan ikaragarria; Cantilluco tunela, barrutik igaro behar duguna, argi askorik gabe. Bejes



■ Las Ballestucas pasarte igarotzen

mendikate guztia zeharkatu dugu eta horrela Electra de Viesgo enpresak duen kasetoira helduko gara. Hau pribatua da, eta ezin da bertan gelditu. Gure gainean Cuetodave daukagu eta beste aldean Tresvisoko bidea eta beste ibilbideen inguruak ikusten ditugu. Hemendik behera, mendi barruan eraikita dauden eskailera artifizialeetatik jaitsiko gara, Las Aileras kanaleko bide ona hartu arte. Zuzenean Urdoneko Zentralera jaitsiko gara, ezagututako paraje izugarriak burutik kendu ezinik.

Garaiera aldea: -825 m

Distantzia: 14,5 km

Denbora: 4-5 ordu

3 PASA DEL PICAYO

Asturiaseko San Esteban de Cuñaba eta Kantabriako Tresviso herriak lotzen zituen bide zaharra da hau. Lehen nahiko arriskutsua zen eta eskuak erabili behar ziren hainbat tokitan trepada txikiak egiteko. Orain, altzairuzko kableekin eta egurrezko eskubandekin babestu dituzte tarte arriskutsuenak eta PR bihurtu dute. Beraz, ibilbidea ondo balizatuta dago. Dena dela, zeharkatzen diren bazter konplexuak eta eskatzen duen esfortzu fisikoak kontutan hartuta, ez da arinkeria jokatzeko tokia.

Bi noranzkoetan egin daiteke. Baina hasiera eta bukaera toki desberdinetan denez, kotxeak antolatu beharko ditugu, edo beste aukera batzuen bitartez lotu. Guk beti San Estebanetik Tresvisorako noranzkoan egin dugu.

Labur-labur, igarotzen diren toki batzuk aipatuko ditugu. Cueto Bea behategia, Medio Lepoa, Las Tejucas kanala, nahiko tentea lepotxo batera heldu arte, Llambrial del Infiernora jaitsi eta beste kanal bat igo. Honen izenak, Restriegapiernas, ondo adierazten du nolakoa den. Gero, Arguma deitzen den ingurua zeharkatu dugu eta Los Cabrerros lepora helduko gara. Hemendik, Rumenes, Deva ibaia eta errepidearen bista izugarriak dira. Bidea jarraituz, Jorcá del Picayo ate naturala igaro, Canaluca del Picayora jaitsi eta Pasara igo berriz. Tombu Sulabarara jaitsi eta Requejo kanaleko harridia zeharkatu ondoren, Canto Morón lepora igo. Hemendik aurrera bidea lasaiagoa da eta laster ikusiko dugu Tresviso herria, baita behetik datorren bide arrunta ere. Horrela, herrira bertara helduko gara.

Garaiera aldea: San Esteban 263 metrotara dago eta Tresviso 900 metrotara, baina igoera eta jaitsiera asko daudenez, garaiera aldea askoz handiagoa da

Distantzia: 6,9 km Tresvisora

Denbora: 4-5 ordu

4 JORAO BIDEXKA, SAHUGOTIK

Ibilbide honekin, abenturarekin jarraituko dugu, baina mirarien esparruan sartuz. Sánchez Antonek dioen bezala, bidexka honen marra sinesgaitzak, igarotzen diren bazter basatiak eta paisaiaren edertasunak ahaztu ezinezko altxorra osatzen dute. Orain, oinkatze segurua eta amildegietara ohitua egotea beharrezkoak dira.

Urdonetik irten eta zentrolean bertan bide arrunta utzi behar dugu eta eskuinera igotzen hasi. Bidexka estu bat nabaritzen da, eta hau da jarraitu beharrekoa. Igoera oso aldapatsua da, eta horrela izango da ibilbide guztian. Sahugo lepora helduko gara eta gero Jorca Sahugo estura. Hemendik ikusiko dugu nondik joan beharko garen gero, baina horretarako Las Ballestucas pasartea gurutzatu behar dugu. Ez da oso zaila, baina bai oso estua, eta ezkerretara amildegia geratzen da. Emozioa gaingiditu ondoren, Trasdejorao kanalera sartuko gara. Izugarria da jakitea kanal honetan baratzea ere zeukatela artzainek. Kanala estutzen denean, ezkerretara atera behar gara eta El Jorao aurkitu. Bi zulo naturalez dago osatuta eta handienetik igo behar dugu. Elurrezko armadura zaharrak apurtuta daude, baina soka bat dago jarrita igoera errazteko, toki oso heze eta labaina baita. Irteeran, armadura on bat ikusiko dugu. Geure bidea jarraituz, zirku dotore batera helduko gara, eta hormaren azpitik zeharkatuko dugu. Hemen guri behelainoa sartu zitzaigun eta, erreferentzia gutxi dagoenez, gorantz igo genuen, ia zuzen, horrela Pasa del Picayora aterako ginela baikenekien. Horrela izan zen, eta bidea hartu ondoren, jarraitzea besterik ez da geratzen Tresvisora heltzeko.

Campo anaien Tabernan bertako produktuak dastatu eta ondo "sidratatu" ondoren, beherako bidea hartu genuen. Urdón ibaira heltzerakoan, harritura ikusten genituen goizean zapal dutako inguruak.

Garaiera alde: 825 m

Distantzia: 5,7 km Tresvisora

Denbora: 4-5 ordu

5 TOMBU ROBRU

Ibilbide honekin erramua eman diegu Tresvisorako igoerei, oraingoz behintzat. Hau benetan miraria da. Honi buruzko informazioa eta argazkiak ikusi genituenean, harritura geratu ginen hortik pasalekua egon zitekeela ziurtatzen zigutelako. Hainbat aldiz igarota geunden haren azpitik (bide arruntetik egindako joan-etorrietan), eta ez genuen uste horma horietatik ausartuko zirenik Tresvisoko

■ *Tombu Robru. Gezurra dirudi hortik igaro daitekeenik*

artzainak. Baina hauek edozertarako gai ziren, eta dira oraindik ere.

Horrela, bada, berriz ere Urdonetik abiatuko gara eta Tresvisorako bide arrunta jarraitzen hasi, zalantzak buruan. Ardura ere bai: gai izango ote gara? Baina eguraldia lagun eta gorputza apur bat berotu ondoren, Cerrosa kanalean, bide arrunta utzi eta Tombuaren azpiko ezproira heldu gara. Bakarrik gaude eta hormak errespetu handia sortzen digu, baina bidexka estu bat nabaritzen da eta zalantzak alde batera utzita aurrera goaz. Laster, oinak ozta-ozta ipintzeko tokia duen erlantz batetik goaz eskuinerantz. Kable bat ere aurkitzen dugu (konfiantza gehiago ematen digu), eta ezkerrean biratu ondoren, Tombu Robrua heltzen gara. Pozik eta era berean harritura gaude hemen egoteagatik. Emozioa handia da, baina hotzikarak ditugu azpian dagoen amildegia ikustean.

Tombu bat, harkaitzean dagoen sabeldura handi bat da, eta haren azpian babesa ematen duen gunea dago. Robru, daukan kolore gorrixkagatik da. Hemen, harrizko ikuilu bat dago abereentzat.

Hemendik aurrera, beste horma bat zeharkatu behar da. Episodio honek ere, lurretik gertu izango balitz, ez luke beste misteriorik izango, baina azpian 300 m inguruko zuloa dagoenean, kontua asko aldatzen da. Zorionez, norbaitek soka finko bat jarri du eta honek zerbait arintzen du oinetan sortzen den dardara. Hau igaro ondoren, Armaduras del Dobrua trepatu beharko dugu. Artzainek jarritako harlauzak daude eta hemen dagoen hormara iristeko erabiliko ditugu. Gero, horman gora erdi eskalatu -- bertan dauden burdinekin kontuz ibiliz-- eta ate bat zeharkatuko dugu. Gaurko emozio handienak hemen bukatzen dira, baina Tresvisoko artzainek gure barnean sortzen duten miresmena gero eta handiagoa da. Orain geratzen zaiguna errazagoa da, dena gorantz, toki garbienak eta nabarmenenak jarraituz, Pasa del Picayora irten arte. Gero, bide ezagunetik Tresvisora helduko gara.

Tresvison, omenaldi txiki bat emango diogu geure gorputzari, ibilbide honekin amets bat zen helburua bete baitugu. Dena dela, oraindik ez dugu bukatu herri honekin daukagun erlazioa...

Garaiera alde: 825 m

Distantzia: 6,9 km Tresvisora

Denbora: 3-4 ordu

DATUAK

Lehenengo hiru ibilaldiak hainbat aldiz egin ditugu. Batzuetan guk biok bakarrik, eta beste batzuetan seme eta lagun batzuekin. Azkenengo biak behin egin ditugu: laugarrena beste bikote batekin eta azkena biok bakarrik, eta gehiagotan errepikatzeo asmoa dugu. Gehienetan egunean egin ditugu. Hau da, Elgoibartik goizean goiz irten, La Hermidara joan, ibilaldia egin eta gauerako Elgoibarrera itzuli.

Aurretik aipatu dugun bezala, ia derrigorrezkoa iruditzen zaigu Ángel Sánchez Antonen *Macizo nororiental de los Picos de Europa. Peñas Cabriegas* liburua erabiltzea. Bertan, oso ondo daude deskribatuta ibilaldi hauek eta beste asko, 108 guztira, eta mapa oso erabilgarria dauka.

Honetaz aparte, guk erabiltzen dugun beste informazio iturria: <http://www.picoseuropa.net> da. Bertan, partaideek egindako ibilaldi bilduma oso interesgarria dago, argazkiekin eta bakoitzaren esperentziak kontatuz. Bilduma hori Picos de Europan dauden hiru mendiguneen arabera dago sailkatuta, eta ekialdeko mendigunean agertzen dira artikulu honetako ibilaldiak.